

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **BALIABIDE UKIGARRIAK**

Gure enpresak bi produktu material ekoizten ditu, beraz, bi produktu horien sorkuntza egiteko oihala, larrua, burdina eta gure ekoizkinek barruan daramatzaten teknologiak eskatzen duen materiala eskuratzea beharrezkoa da. EHUko sailarekin eta Maintool enpresarekin adostutako kontratuetan ezarrita dago materialak eskuratzea haien beharra izango dela eta posiblea den heinean, birziklatutako materialak izango direla (kostuak murrizteko eta munduarekiko jarrera jasangarria izan dezagun).

Bestalde, gure produktuak gordetzeko biltegia alokatu behar da, aurretik aipatutako gobernutik datozen diru-laguntzak erabiliz. Aukeratutako tokia, arazorik gabeko gunean bilatu dugu eta handia da kutxa guztiak orden jakina jarraituz biltzeko, eta barrutik altzari askorik ez baditu ere, beharrezkoa den kostu gutxiko ostilamendua eramango dugu (apalategiak, produktuak erakusteko biltegiara datozen bezeroentzat; mahailak eta aulkiak, biltegi bat denez ez baita gehiagorik behar). Hala ere, ez dugu jabetza gehiagorik kontratatu behar, behintzat lehenengo urteetan, erosketak interneten bidez eta aipatutako biltegian egingo baitira.

Jada azaldu dugu, baina lehen urteetan gu laurak baino ez gara lanean arituko ez direlako langile askorik behar eta jarduerak banatuta (idazkaritza, paketatzea, sare sozialen kudeaketa...) gai izango baikara proiektua bideratzeko. Betiere, garrantzitsua da gobernuko lizentziak eskuratzea (biltegian lan egiteko baimena, biltegiaren fatxada prestatzeko baimena, han bertan erostea posible izateko baimena eta kamioiak han deskargatzeko baimena), finantzaketa hitzarmenak egin eta betetzea gure hornitzaileekin, eta kontratu erraz baina beteak eratzea bezero zein hornitzaileekin (entregatze-epeak, produktuak itzultzeko/erabiltzeko baldintzak, enpresaren politika...).

Amaitzeko, jabetza intelektuala garrantzi handiko kontua da. Alde batetik, salerosketen eta hornitzaileekin egindako trukeen informazio guztia digitalki gordeko da, eta ahalik eta ziurrena izateko, kostu gutxiko aplikazioa erosi dugu (arriku guztiak ekiditzeko). Bestalde, gure enpresaren jabetza intelektuala zaintzea ditugun sorkuntzak babesten dituen eskubideen multzoa da, hala nola patenteak, markak, egile-eskubideak eta diseinu industrialak. Baliabide hauek baliotsuak dira gure enpresarentzat, gure berrikuntza babesteko eta beste enpresak gure ideietatik etekinik ez ateratzeko aukera izateko.

- **BALIABIDE UKIEZINAK**

Gure enpresak ondo funtziona dezan, ezinbestekoa da gure filosofia markara ondo egokitzea eta urteen poderioz egitura osoan txertatzea. Horregatik, gure balio ukiezinak ondo erabakita edukitzea ezinbestekoa da, gure marka eta bere balioak definitzen dituen direla eta. Gure enpresaren baliabide ukiezinak honela sailka daitezke:

- **Giza baliabideak eta kapital intelektuala:** Horien artean, langileen kualifikazioak eta harremanak bezalako aktiboak daude.

Langileei dagokienez, konfiantzazko eta errespetuzko harremana eztabidaezina da, horrek taldearen konpromiso handia sortzen baitu enpresa proiektuan. Eta horretarako beharrezkoa da meritokrazian oinarritutako langilearekiko ebaluazio-irizpide objektibo bat saiatzea. Gainera, enpresaren kulturara eta balio korporatiboetara egokitze gaitasuna ere beharrezkoa da. Beraz, enpresako langileen aktibo ukiezinari dagozkion lehentasunak argi utziko ditugu:

1. **Ezagutza eta trebetasunak:** Horretarako lortutako titulazio-maila lortu beharko da, lanbide-kualifikazio handiak eta produktuen erosketa eta salmentarekin lotutako beste enpresa batzuetan urtetako esperientzia profesionala
2. **Balioak, jarrera eta motibazioa talde-lanaren barruan.** Hau da, lan-giro ona sortzeko gaitasuna izatea. Lan egiten duzun langileen asebetetze-mailaren arabera neurtuko da eta enpresan emandako batez besteko urte kopurua
3. **Sormena, lidergoa eta kudeaketa eta proiektuan moldatzeko gaitasunak.**

Zuzendaritzari dagokionez, lan baliabide hauek eskainiko dizkiogu langileei:

1. **Laneko segurtasuna**
 2. **Pizgarriak:** Produktibitate osogarrietatik urteko ehunekoa eskiatzea langileei.
 3. **Etengabeko prestakuntza:** Klaseak, tailerrak eta formakuntza saioak eskaintzen zaizkie langileei, enpresa barruan beren lan-esperientzia ahalik eta gehien hobetzeko.
 4. **Enpresaren Gizarte Erantzukizuna (EGE):** Oso baliabide garrantzitsua da, gure enpresa kudeatzeko sistema honetan oinarrituko delako. Bere printzipio nagusiak gardentasuna, etika, giza eskubideen errespetua, ingurumena zaintzea eta komunitatearekiko konpromisoa dira.
- **Markaren irudiak eta ospe-aktiboak:** Ezin dugu ahaztu gure **bezeroekiko harremana**, gure helburu nagusia markaren ospea zaintzea da. Ebaluazio hau denboran zehar produktuen kalitatearen, bezeroarentzako arretaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren praktiken bidez eraikitzen da. Horregatik, hori guztia zaintzea izango da gure bezeroen leialtasuna bermatzeko eta balorazio ona mantentzeko helburu nagusietako bat.

Horretarako, gure enpresak eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen kalitatea garrantzitsua da, batez ere, **marka irudiaren** eta branding-estrategiaren bidez transmititzen dituzten emozio, sentimendu eta baloreekin lehiatik bereizteko.

Bestalde, **marka-identitateak** bere balio propioak izango ditu, lehen aipatu ditugunak, (EGE) oinarritzen diren balioak, hala nola gardentasuna, etika, giza eskubideen errespetua, ingurumena zaintzea eta komunitatearekiko konpromisoa dira. Beraz, markaren irudiaren bitartez hori transmititzen saiatzea gure baliabide handienetako bat izango da.